

Euskadiko Industria Ekobarometroa 2025

LABURPEN EXEKUTIBOA



Sarrera eta metodoa

Euskadiko 2025eko Industria Ekobarometroak, aurreko edizioetan bezala, ikuspegi analitiko bat hartzen du, euskal industriaren ingurumen-heldutasuna ulertzera eta jasangarritasuna enpresa-kudeaketan eraginkortasunez txertatzera bideratua dagoena. Hala ere, edizio honek ikuspegi berri bat du, jasangarritasuna lehiakortasunerako faktore estrategiko gisa nola finkatu den aztertzea bideratua, kostu gisa hautematetik bereizteko eta balioa sortzeko aukera izatera pasatu baita.

Azterlanaren arabera, euskal industriak normalizazio-maila nabarmena lortu du baliabideen eraginkortasun-praktiken aplikazioan, batez beste enpresa bakoitzeko bost ingurumen-jarduera baino gehiago aplikatu baitira. Joera horrek aurreko ebaluazioekiko jauzi kualitatibo bat islatzen du, eta agerian uzten du jasangarritasuna sistematikoki txertatzen dela ekoizpen-prozesuetan, berrikuntza teknologikoan eta erabaki estrategikoak hartzean.

Hala ere, edizio honek aurrerapen-erritmo desberdinak daudela ere erakusten du: IPPC enpresek eta I+G+Bn dihardutenek garapen bizkorragoa dute, eta beste kolektibo batzuek –10 langiletik gorako industria-enpresek edo gizarte-ekonomiako erakundeek, esaterako—, aldiz, progresio mailakatuagoa dute. Era berean, egiturazko oztopoak daude oraindik, hala nola neurrien kostu ekonomikoa eta administrazio-komplexutasuna, ekoberrikuntzaren eskalagarritasuna mugatzen dutenak.

Illo horretan, 2025eko Industria Ekobarometroa funtsezko tresna da jasangarritasunak euskal industrian duen integrazio-maila ebaluatzeko, oztopoak eta aukerak identifikatzeko eta enpresei zein Administrazio Publikoari trantsizio ekologiko eta digitalari laguntzeko politiken diseinuan orientabidea emateko. Horrela, eraldaketa horiek Euskadiko ekoizpen-sarearen lehiakortasunean, baliabideen eraginkortasunean eta berrikuntza-gaitasunean duten eragina neurtzeko aukera ematen duen erreferentzia-mekanismo bihurtzen da.

Sarrera eta metodoa

Metodologia

Euskadiko Industria Ekobarometroa Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko Ihobe sozietate publikoak egiten du aldian behin.

Txosten honek euskal industria-enpresek ingurumenaren arloan duten pertzepzioa, jarrerak eta portaerak ebaluatzen ditu. Edizio honetan, azterketa eskualdeko ingurumen-estrategiaren barruan kokatzen da, eta bere irismen tematikoa zabaltzen du, ekoberrikuntzari eta digitalizazioari lotutako dimentsio berriak txertatzeko.

Azterlanaren metodologia enpresa-jasangarritasunaren arlo nagusiei buruzko informazioa sistematikoki biltzearen inguruan egituratzen da, honako hauek barne hartuta: materialen, energiaren eta uraren erabilera eraginkorra; enpresek ingurumena hobetzeko egindako jarduketak; jarduketa horiek bultzatzen dituzten motibazioak; eta horien garapena mugatzen duten oztopoak.

Era berean, neurri horien eragin ekonomikoa aztertzen da, bai ekoizpen-kostuei dagokienez, bai fakturazioari dagokionez, baita enpresa-prozesuetan teknologia berdeak eta digitalak zenbateraino sartu diren ere.


Edizio honetan, gainera, jasangarritasunari eta digitalizazioari buruzko enpresa-prestakuntzari buruzko modulu espezifiko bat dago, erakundeek trantsizio ekologikoaren erronkei aurre egiteko duten barne-gaikuntzaren maila baloratzeko. Azterlanak arreta berezia eskaintzen dio enpresa-tipologiaren arabera bereizketari —industria-enpresak, IPPC, I+G+b eta gizarte-ekonomiakoak—, eta portaera-patroi, heldutasun-maila eta aurrerapen-erritmo desberdinak identifikatzea ahalbidetzen du.

Hartutako metodologiak, oro har, euskal industriaren ingurumen-konpromisoaren ikuspegi zehatza eta ebolutiboa ematea ahalbidetzen du, bai eta jasangarritasunak euskal industria-politikaren horizontean lehiakortasunerako eta eraldaketarako motor gisa duen potentziala ebaluatzea ere.

Asmotik ekintza orokorrera igaro gara

5,5+

Ekintza baino gehiago batez beste enpresa bakoitzeko 2025ean eraginkortasuna hobetzeko



Energia aurrezteko (% 88), hondakinak minimizatzeke (% 87) eta materialak aurrezteko (% 83) praktikak jada normalizatuta daude kudeaketan.

Aldaketaren motorra ez da legea bakarrik, konbikzioa baizik



Barne-motibazioak erregulazio-presioa gainditzen du,
jarduteko arrazoi nagusi gisa

I+G+Bko enpresen kasuan, motor gisa kontzientzia dutenen kopurua % 67ra iristen da,
ikuspegi estrategiko hutsa agerian utziz.

Aurrerapen hori bi abiaduratan gertatzen da

ABANGOARDIA (IPPC & I+G+b)

4 teknologia berde baino gehiago txertatu dira batez beste

Ia erdia (IPPCen % 48) bere sektorearen gaineratik dago ingurumen-berrikuntzaren arloan

PELOTOIA (Industria orokorra & Gizarte Ekonomia)

3 teknologia berde pasatxo txertatu dira batez beste

Soilik **% 23** dago bere sektorearen gaineratik

Teknologia-ezarpenaren arrakala dela eta, lehiakortasun-maila desberdinak dituen industria-sektore bat sor daiteke.

Bi oztopo nagusik geldiarazten dute pelotoia: kostuak eta konplexutasunak



Industria-enpresen

% 61ek

kostua aipatzen dute oztopo nagusitzat
(2020an % 54 ziren).



% 55ek

administrazio-prozeduren konplexutasuna
aipatzen dute
(2020an % 33 ziren).

Balazta burokratikoa areagotu egiten da. Enpresa bakoitzak deklaraturako oztopoen batez besteko kopurua 2,2tik 3,7ra igo da 2020tik

1. palanka: Abian dagoen ekoberrikuntza bizkortzea

Enpresak hiru arlo teknologikotan inbertitzen ari dira lehentasunez



Ekonomia zirkularra

Industria orokorraren
% 53k eta
Gizarte-ekonomiakoen
% 69k inplementatua



Energia monitorizazioa

Funtsezkoa IPPC
enpresen % 73rentzat



Energia berriztagarriak

Industriaren % 40k
instalazioan
eguzki-energia
integratzen du

Mapa teknologikoa taxututa dago. Hurrengo urratsa hartzea orokortzea da

2. palanka: Lehendik dugun giza potentziala aktibatzea

Enpresak hiru arlo teknologikotan inbertitzen ari dira lehentasunez.

TALENTUA EXISTITZEN DA


Langile kualifikatuak ditugu

Industria-enpresen

% 60_k **% 53_k**

ingurumen-kudeaketan
prestakuntza duten
langileak dituzte

hondakinen
kudeaketan edo
ekonomia zirkularrean
prestatutako
langileak ditu



ESTRATEGIA FALTA DA

Baina ez dugu
prestakuntza-planik

Industria orokorraren % 17k
bakarrik du prestakuntza-
plan sistematikoa eta
aurrekontuduna

Prestakuntza sistematizatzea inbertsio teknologikoa kapitalizatzekeo
galdutako katebegia da

3. palanka: Enpresek eskatzen duten bidea garbitzea

Enpresak hiru arlo teknologikotan inbertitzen ari dira lehentasunez

Laguntza ekonomikoak
ematea (kenkariak,
dirulaguntzak)



%66

(eta % 81era igotzen da
IPPCen kasuan)

Prestakuntza sustatzea



%46

Ez da norabideari buruzko argibiderik eskatzen, dagoeneko hasita dagoen bidaia
baterako oztopoak kentzea baizik

Lehiakortasun jasangarrirako bidea



INBERTITU

Laguntza ekonomikoa industria orokorrak eta ETEek teknologia ezartzean ardaztea, arrakala itxi eta ekoberrikuntza bizkortzeko



SINPLIFIKATU

Zama burokratikoa murriztea eta administrazio-prozedurak arintzea, gehien areagotu den oztopo ez-finantzarioa



GAITU

Gaitasun berde eta digitalen gaineko prestakuntza sistematizatuko duten programak bultzatzea, industriaren potentzial guztia aktibatzeko

Fitxa teknikoa

Euskal Autonomia Erkidegoan 10 langile baino gehiago dituzten enpresa industrialei egindako 567 elkarrizketaren bidez egindako azterlan kuantitatibo batean oinarritzen da ikerketa.

Característica

Técnica

Trabajo de Campo

Universo de Análisis

Error Muestral

Ezaugarria

Teknika

Landa-lana

Analisien unibertsoa

Lagin-errorea

Fitxa teknikoa

Lau enpresa-tipologia aztertu ziren:

- **IPPC enpresak:** Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari lotutakoak.
- **I+G+b enpresak:** Ikerketa, garapen eta berrikuntzako jarduerekin.
- **Gizarte-ekonomiako enpresak:** Jarduera ekonomikoa eta gizarte-balioak uztartzen dituzte.
- **Industria-enpresak:** 10 langile edo gehiago dituzten enpresa "orokorrak".

Tipología de Empresa	Nº de
Total	567
Empresas Industriales	401
Empresas IPPC	77
Empresas I+D+I	54
Empresas de Economía Social	35

Enpresaren tipologia	Kopurua
Guztira	567
Industria-enpresak	401
IPPC enpresak	77
I+B+b enpresak	54
Gizarte-ekonomiako enpresak	35

Jasangarritasunak kostu izateari utzi dio. Lehiakortasunaren muga berria da

“Ingurumen-konpromisoa legea betetzetik harago hedatu da, eta enpresen garapenerako eta bereizketarako faktore gisa finkatu da. Jasangarritasuna ez da kostu gisa ikusten, balioa sortzeko, talentua erakartzeko eta euskal industria-sektorearen malgutasuna hobetzeko aukera gisa baizik”.

Euskadiko Industria Ekobarometroa 2025

